



GOBERNU BILERA

Prentsa-Txostena
Erabaki nagusiak

CONSEJO DE GOBIERNO

Dossier de Prensa
Acuerdos destacados

Vitoria-Gasteiz, 2018ko apirilak 17

Vitoria-Gasteiz, 17 de abril de 2018

Lehendakaritza

**EUSKO JAURLARITZAK LANKIDE BOLUNTARIOAK NAZIO BATUEK
HEGOALDEKO HERRIALDEETAN DITUZTEN BULEGOETAN
PARTEHARTZEKO BEKA DEIALDIA ONARTU DU, 300.000 EUROKOA
IZANGO DELARIK**

Jaurlaritzaren Kontseiluak argi berdea eman dio gaur Nazio Batuen Sistemaren parte diren nazioarteko erakundeei eta erakunde horiekin lotura duten pertsona juridikoei laguntzak emateko deialdiari, pobretutako herrialdeetan erakunde horiek garatzen dituzten proiektuetan parte hartzen duten langile boluntarioei beka emateko.

Diru-laguntzak Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak (GLEA) kudeatuko ditu eta Nazio Batuekin lotura duten erakundeak edo pertsona juridikoak aurkezten dituzten hautagaitzen bitartez emango dira. Diru-laguntza horiek guztira 300.000 eurokoak izango dira. Beka bakoitzaren dotazioa 18.000 euro urtero izango da.

Beka horiekin, GLEAk bultzatu nahi du eskatutako profiletarako prestakuntza eta gaitasun profesional egokia duten Euskadiko lankide boluntarioak lan horietan sartzea, Nazio Batuak Latinoamerikan, Asian eta Afrikan dituzten agentzia, fondo eta programen bulegoetan, hain zuzen.

1997tik, 765 pertsonatik gora hartu dute parte programa horretan eta giza garapen iraunkorraren eta giza eskubideen babesaren garapenean lagundu dute. Horretaz gain, asko izan dira gero nazioarteko lankidetzak garatzen jarraitu dutenak eta Nazio Batuen Sistemari erabat murgildu direnak.

Gobernantza Publiko eta Autogobernu

EUSKO JAURLARITZAK ESPAINIAKO GOBERNUARI ESKATU DIO ADIF- EN AZKEN KATALOGOTIK EUSKADIREN ESKUMEN ESKLUSIBOKOAK DIREN BI TREN LINEA KENTZEKO

- **08-782-Basurtu Ospitalea-Ariz eta 08-784-Irauregi-Lutxana-Barakaldo** lineak dira; biak doaz osorik Euskaditik, eta Konstituzio Auzitegiak Eusko Jaurlaritzaren eskumenekoak direlako irizpena eman du
- Eusko Jaurlaritzak bi hileko epean “*Eskualdatzeen Batzorde Mistoa*” deitzeko eskatzen du, eskualdatze horrekin uda aurretik amaitzeko

Gobernu Kontseiluak onetsi du, gaur, Espainiako Gobernuari ADIFek bere interes orokorreko linea-sare eta tarteetan eginiko azken eguneratzetik bi tren-linea kentzeko eskatzea; horiek osorik doaz Euskaditik. Errekerimendu hori ez bada aintzat hartzen, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jartzeko beharrezko aurretiko urratsa da, Espainiako Gobernuak bere eskumenen eremutik Euskadiren titulartasunekoak diren bi lineak kentzeko.

Eusko Jaurlaritzaren zerbitzu juridikoen txostenaren arabera, Espainiako Gobernuak “ADIFen sareari buruzko Adierazpena”ren beste eguneratze bat onetsi du 2018rako. Katalogo horrek *08-782-Basurtu Ospitalea-Ariz eta 08-784-Irauregi-Lutxana-Barakaldo* lineak jaso ditu, eta eskumen hori Euskadiri dagokio, [Konstituzio Auzitegiaren 124/2016 Epaiaren](#) arabera.

ESKUALDATZEEN BATZORDE MISTOA

Eusko Jaurlaritzaren ustez, ulertezina da bi trenbide-linea horiek eskualdatzeko atzerapena. Eskualdatze hori aurtengo urtearen hasieran gauzatzea aurreikusten zen, Gobernu Kontseiluari, [2017ko uztailaren 18an](#), jakinarazi bezala. Horrela, Espainiako Gobernuari eskatzen dio izapide egokiak has ditzan, gehienez bi hileko epean, “*Eskualdatzeen Batzorde Mistoa*” deitzeko, hartutako konpromisoaren arabera dagokion eskualdatzearekin bukatzeko, Espainiako Gobernuak, arrazoirik gabe, blokeatuta daukana.

11 LINEA

Bi linea horiek osorik igarotzen dira Euskal Autonomia Erkidegotik; Eusko Jaurlaritzak trenbideen eta herri-lanen inguruko eskumena betetzeko (Gernikako Estatutuaren 10.32 eta 10.33 artikuluetan jasotzen da) aldarrikatzen dituen 11 tarteetako 2 baino ez dira. Eusko Jaurlaritzaren aldarrikapen historikoa da, eta gainera, “[XI. Legegintzaldiko Gobernu Programa](#)”ren 38. eta 173. puntuetan ere jasotzen da, eta bete gabe dauden eskualdatzeei buruzko txostenaren eguneraketako 5. fitxan laburbiltzen dira. Txostena Eusko Legebiltzarrera eta Espainako Gobernura bidalita dago.

Eusko Jaurlaritzak trenbide-azpiegituren titulartasuna eta administrazioa aldarrikatzen ditu, azpiegitura eta Euskaditik igaro diren trenbide-lineak eta -zerbitzuak arautu, ustiatu eta kudeatu ahal izateko:

BIDAIARIAK:

- ✓ 100: Irun-Brinkola.
- ✓ 700: Bilbo/Urduña
- ✓ 720: Bilbo/Abando-Santurtzi.
- ✓ 722: Desertu/Barakaldo-Muskiz.
- ✓ 780: Bilbo/La Concordia-Irauregi
- ✓ 790: Bilbo-Balmaseda.

SALGAIK:

- ✓ 724: Bilbo-Santurtzi
- ✓ 201: Pasaiaiko Portua
- ✓ 481: Bilboko Portua

Ekonomiaren Garapena eta Azpiegiturak

EUSKO JAURLARITZAK 10 MILIOI EUROREN LAGUNTZAK IRAGARRI DITU LANDA GUNEEN GARAPEN SOZIOEKONOMIKORAKO

- Enpresak sortu eta modernizatzeko, azpiegiturak eraiki eta konpontzeko eta etxebizitzak hobetzeko inbertsioak egiten lagunduko dute
- Pertsona fisikoek edo juridikoek, publikoek zein pribatuek, eskuratu ahal izango dituzte laguntza horiek, baldin eta Euskal Herriko Leader guneetako udalerrietan kokatuta badaude

Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburu Arantxa Tapiak emandako agindu baten bitartez, Eusko Jaurlaritzak 10 milioi euroren laguntzak iragarri ditu LEADER gunean sartzen diren landa udalerriak bultzatu eta garatzeko, eta haien dibertsifikazio ekonomikoa lortzeko. Euskal Herriko Landa Garapeneko 2015-2020 Programaren barruko laguntzak dira, eta haien helburua da 2018an enpresak sortu, handitu eta modernizatzea, besteren konturako langileak kontratatzea, azpiegiturak eta oinarrizko zerbitzuak eraiki eta konpontzea, eta etxebizitzarako irispidea hobetzea.

Laguntzen aplikazio eremu geografikoan sartzen dira Leader gunerako aukeratutako udalerrri guztiak (122 udalerrri guztira, non 93.000 lagunetik gora bizi diren). Diru laguntza ez-itzulgarritzat jotzen dira laguntzak, eta laguntzen onuradunak izan daitezke pertsona fisiko edo juridikoak, publikoak zein pribatuak, izaera juridikoa edukita zein ez, edo edozein eratako unitate ekonomiko edo ondare bereizia, izaera juridikoa eduki ez arren esandako udalerrietan aurreikusitako proiektuak eta jarduerak egin baditzaizkete.

Diru zuzkidura

“FEADER” Landa Garapenerako Nekazaritza Fondo Europarraren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren kontura finantzatuko dira laguntzak, 2015-2020 Euskal Herriko Landa Garapeneko Programan ezarritakoaren arabera.

Aurrekontuko kredituak honetarako laguntza lerroetarako dira:

- Nekazaritzakoak ez diren jardueretarako enpresak sortzeko (Start Up)
- Enpresak sortu, handitu eta modernizatzeko inbertsioetarako.
- Besteren konturako kontrataziorako.
- Azpiegituretarako, oinarrizko zerbitzuetarako eta udalerrriak berritzeko.
- Etxebizitzarako

2018ko ekitaldirako, beste 3.766.725,00 euro gehiago erabiliko dira, Euskal Herriko Landa Garapenerako 2015-2020 Programan Batzordeak onartutako finantzaketaren osagarri gisa, eta diru kopuru hori Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren kontura baino ez dira finantzatuko.

Eskabideen aurkezpena

Eskatzaileek dokumentazio orokorra eta laguntza lerro bakoitzerako dokumentazio berezia aurkeztu beharko dituzte, bi aletan, «MENDINET Landa Garapenerako Aurrerapenerako Elkarte»-n, Toki Ekintzarako Taldea baita, agindu arautzaileak zehazten duenaren arabera. Eskabide orria, III. eranskinean doana, www.nasdap.ejgv.euskadi.eus web gunean egongo da eskuragarri.

Eskaerak aurkezteko epea hilabete batekoa izango da, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitu eta hurrengo egunean kontatzen hasita; halere, epe hori baino lehen aurkeztutako eskaerak ere onartuko dira, baldin eta deialdiaren ekitaldiaren barruan aurkezten badira.

Eusko Jaurlaritzako Landa eta Itsasertzaren Garapenerako eta Europar Politiken Zuzendaritza arduratuko da programa kudeatzeaz, eta «MENDINET Landa Garapenerako Aurrerapenerako Elkarte»-rekin batera arituko da horretan, zeinak, Toki Ekintzarako Taldea den heinean, eskabideak eta eskatutako dokumentazioa aztertuko baititu.

Enplegua eta Gizarte Politikak

EUSKO JAURLARITZAK, ERABEREAN SAREAREN BIDEZ, ETA EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEKO ZUZENBIDE FAKULTATEKO JUSTIZIA SOZIALAREN ALDEKO KLINIKA JURIDIKOAK LANKIDETZA HITZARMENA SINATUKO DUTE, GIZARTE DISKRIMINAZIOAREN ETA BAZTERKETAREN AURKA BORROKATZEKO, ANIZTASUNA ETA TOLERANTZIA SUSTATZEKO ETA GIZARTE JUSTIZIA LORTZEKO

Eusko Jaurlaritzak Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren bidez sustatzen duen Eraberean Sareak –bertan daude immigrazioaren eremuan eta ijitoen eta LGTBI kolektiboaren sustapenean modu esanguratsuan lanean ari diren zenbait gizarte-erakunde– lankidetzaz hitzarmena sinatuko du Euskal Herriko Unibertsitateko Zuzenbide Fakultateko Justizia Sozialaren aldeko Klinika Juridikoarekin.

Hitzarmenaren helburua da funtsean baterako lan-dinamikak garatu ahal izateko espazioa eratzeko harremana formalizatzea, ulertzen baita gizarte-diskriminazioaren eta -bazterketaren aurka borrokatze, aniztasuna eta tolerantzia sustatzeko eta gizarte-justizia lortzeko ezagutza teoriko eta praktikoen elkarrekiko fluxuaren bidez, sinergia bat sortu ahal delako eta, azken beltzean, horren bitartez helburuak lortu ahal direla, baterako ikuspegiak edo ikuspegi partekatuz.

LANBIDE - EUSKAL ENPLEGU ZERBITZUAK ETA ENERGIAREN EUSKAL ERAKUNDEAK (EEE) AKORDIOA SINATUKO DUTE, LANBIDERI ATXIKITAKO ERAIKIN ETA INSTALAZIOETAKO JASANGARRITASUN ENERGETIKOA SUSTATZEKO

Lanbide - Euskal Enplegu Zerbitzuak eta EEE - Energiaren Euskal Erakundeak hitzarmena sinatuko dute; hasieran, urtebeteko indarraldia izango du, baina urtero luzatu ahal delako da, gehienez lau urtez, jarduketak egiteko elkarrekin, Lanbideri atxikitako higiezinetakoko jasangarritasun energetikoan aurrera egiteko eta kudeaketa energetikoa hobetzeko.

Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza

230.000 EURO EUDELEKIN HITZARMENA SINATZEKO, EUSKADIKO UDALERRIETAN ERAIKINEN IKUSKAPEN (EIT) TEKNIKOA EGIN DADIN SUSTATZEKO

Gobernu Kontseiluak ontzat eman du Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak EUDELeKin hitzarmena sinatzea, Euskadiko udalerrietan eraikinen ikuskapen teknikoaren (EIT) ezarpena eta segimendua egitea sendotzeko.

EITa higiezinaren kontserbazio-maila zehazteko funtsezko tresna da, bai higiezinaren egitura-elementuena, bai beren instalazioena, bai eta energia-eraginkortasunaren eta irisgarritasun unibertsalaren maila zehazteko ere. Hura egitea derrigorrezkoa da lehentasunez bizitegitarako diren eta 50 urte baino gehiagoko antzinatasuna duten eraikinetarako; ondorioz, datorren uztaila baino lehen 73.000 higiezin baino gehiagotan egin beharko da ikuskapena. Ikuskapen teknikoa izatea beharrezkoa da, gainera, birgaikuntzarako eta irisgarritasunerako edonolako laguntza publiko jasotzeko. Euskadiko eraikin-parkea oso zaharkituta dago; izan ere, EAEn dauden 163.642 eraikinetatik, % 43 1961a baino lehen eraiki zen, 2011ko etxebizitza-zentsuko datuen arabera, eta horrek kontserbazio-arazoak, irisgarritasunik eza eta eraginkortasun energetikorik eza ekar ditzake.

Eudel-Euskadiko Udalen Elkartearekin sinatuko den hitzarmenaren bitartez, 2015eko Etxebizitza Legea garatzeko, autonomia-erkidego osoan EITak egin daitezkeen sustatu nahi da eta, horretarako, udalei EITen kudeaketa koordinatua egiteko behar den informazio guztia eta laguntza teknikoa eman eta, ondoren, Euskoregite plataforman erregistratu, hala egin behar baitute udalerriek. Hitzarmenak lau urteko iraupena izango du, eta, horren bitartez, Etxebizitza Sailak bere gain hartzen du EITak Eudelekin eta udalekin koordinazioan kudeatzeko baliabide materialak diseinatzeko eta ezartzeko eginkizuna. Halaber, Euskoregite plataforma mantentzeko lanak egiteko eta haren eguneratzeak udalerrien esku jartzeko konpromisoa hartzen du.

Jarduketa horien ondoriozko gastuak Etxebizitza Sailak hartuko ditu bere gain eta, horretarako, ekitaldi honetan, 230.000 euro bideratuko ditu bere aurrekontuetatik. Era berean, bi aldeek konpromisoa hartzen dute elkarrekin eraikinen ikuskapen teknikoari buruzko eta birgaikuntzako politikei buruzko prestakuntza- eta zabalkunde-jarduketak eta udalentsako laguntzak sustatzeko.

Hezkuntza

712.000 EURO IRAKASLEEN ETENGABEKO PRESTAKUNTZARAKO

- **2017-2018 ikasturte honetan irakasleentzako 250 prestakuntza-ikastaro eskaintzen ditu Hezkuntza Sailak, Prest_Gara planaren baitan**

Gobernu Kontseiluak, Hezkuntza sailburuaren proposamenez, gaurko bileran onartu du Hezkuntza Sailarekin elkarlanean aritu nahi duten erakunde publiko eta pribatuei irakasleen etengabeko prestakuntzarako proiektuak aurkeztera dei egiten dien Agindua, 2018-2019 ikasturterako Prest_Gara Planaren baitan. 712.000 euroko diru kopurua duen deialdi honek, ondorengo prestakuntza-jardueretakoren bat egitera zuzendutako proiektuak diruz laguntzea du helburu:

-**Atzerriko hizkuntzetako prestakuntza-jarduerak:** 200.000 euro bideratzen dira 2018-2019ko ikasturtean zehar burutuko diren jardueretarako, eta 110.000 euro 2018ko udan egingo direnetarako.

- Unibertsitatez kanpoko hezkuntza etapetako **irakasleen gaitasun profesionalak garatzeko jarduerak** eta indarrean den eskola-curriculumari zein Hezkuntza Sailak ezarritako jarduera-eremuei lotutakoak (atzerriko hizkuntzetan prestatzekoak izan ezik): 132.000 euro bideratuko dira 2018ko uztailaren 9tik urriaren 31ra bitartean egingo diren jardueretarako, eta 200.000 euro 2018ko azaroaren 2tik 2019ko ekainaren 30era bitartekoetarako.

-Era berean, deialdiak jasotzen du Sailak aurreko bi atal horietan aurreikusi ez arren, erakunde laguntzaileek proposatu dituzten beste zenbait prestakuntza-jarduera diruz laguntzeko aukera ere, baldin eta edukiarengatik, ikuspegiarengatik edo izaera berritzailearengatik irakasleen etengabeko prestakuntzarako interesa badute. 70.000 euro jasotzen dira hirugarren atal honetarako.

2017-2018 ikasturte honetan zehar, Hezkuntza Sailak unibertsitatez kanpoko irakasleentzat, izan ikastetxe publikoetakoak zein itunpeko ikastetxetakoak, 5.762 plaza eskaintzen ditu 250 ikastaro desberdinetan, guztiak ere aurrez azalduko arloekin lotura dutenak. Ikastaro horietan 4.916 irakasle ari dira parte hartzen edo parte hartuko dute ikasturtea amaitu baino lehen. 2017-2018 ikasturteko Prest_Gara Planean 60 elkarte edo erakunde formatzaile ari dira lanean. Horiei guztiei Berritzegune Nagusia gehitu behar zaie (Hezkuntza Sailaren menpeko zentroa), honek ere prestakuntza jarduerak eskaintzen baitihardu.

Azken xedea, ikaslea

Hezkuntza Sailak badu irakasleak prestatzeko plana. Plan horretan, alde batetik, prestakuntza-proposamenak egiten ditu, unibertsitateaz kanpoko irakasleen lan-gaitasuna hobetzearren, eta bestetik, proposatzen du irakasleek eurek beren lanean sumatzen dituzten beharren eta egiten dituzten eskaeren

araberako prestakuntza etengabea. Irakasleek jarduera horien bidez eskuratutako jakintza eta trebetasunek ikasgelako eguneroko lanean izan behar dute isla, eta ikastetxean ere inpaktua izan, hezkuntza-sistemaren kalitatea hobetze aldera.

Horregatik, prestakuntza-prozesu orok ikaslea izan behar du azken xede, prestakuntzak zentzua baitu hezkuntza-sistemaren ekitatearen eta bikaintasunaren onerako eragiten duen neurrian, eta hezkuntza-sistemaren erreferentzia ikaslea izanik, prestakuntzari eta berrikuntzari ikasleak ematen baitio zentzua hezkuntza-esparruan.

Deialdi honetan parte hartu nahi duten erakunde eta elkarteek hilabeteko epea izango dute Hezkuntza Sailari euren proiektuak aurkezteko, Agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita. Deialdi honen onuradun izan daitezke, Prest_Gara planaren barruan Euskal Autonomia Erkidegoan irakasleak prestatzeko jarduerak egiten dituzten edo egiteko prest dauden erakunde publiko edo pribatuak.

Hezkuntza

1,3 MILIOI EURO IKASTETXEKO HIZKUNTZA-PROIEKTUAK GARATZEKO

Gobernu Kontseiluak Hezkuntza sailburuaren proposamenez gaurko bileran onartu du Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoa ematen duten itunpeko ikastetxe pribatuekin harreman estatutarioak edo erregelamenduzkoak dituzten federazio eta elkarteentzako diru-laguntzen deialdia egiten duen Agindu bat, hauek euren hizkuntza-proiektuak gara ditzaten.

Aipaturiko ikastetxe horiek deialdi honek arautzen dituen diru-laguntzak jaso ahal izango dituzte baldin eta, 2018-2019 ikasturtean, berrikuntza-proiektuak egiten badituzte ikastetxeko hizkuntza-proiektua garatzeko modalitate hauetakoren batean:

- Ikastetxeko hizkuntza-proiektua, irakurketa-plana lehentasuntzat hartuta eta hizkuntzen tratamendu integral eta integratuaren ikuspuntutik garatuta.
- Ikastetxeko hizkuntza-proiektu eleaniztuna, euskara ardatz hartuta eta curriculum-alor edo -gaiak atzerriko hizkuntzetan irakastean zentratuta.

Deialdi honen bidez diruz lagundu ahal izango dira irakasleen prestakuntza jarduerak, beti ere ikastetxeko hizkuntza-proiektua garatzeko berrikuntza-proiektuei loturikoak. Hala nola:

- Prestakuntza-jarduerak, Irakurketa Planaren diseinuari eta garapenari lotuak.
- Prestakuntza-jarduerak, ikasleen irakurmena garatzen laguntzeko metodologia aktibo eta berritzaileekin zerikusia dutenak (batez ere, euskaraz).
- Prestakuntza-jarduerak, alor eta gai guztietako irakasleei zuzenduak, ikasleen komunikazio-gaitasunaren garapena hobetu eta hizkuntzen tratamendu integratua eta integralari ekiteko.
- Prestakuntza-jarduerak, hizkuntzen irakaskuntzarekin eta atzerriko hizkuntzan ematen diren gaien irakaskuntzarekin zerikusia dutenak, metodologia aktibo eta berritzaileak garatzeko, hizkuntzen tratamendu integratua eta integrala sustatze aldera.

Deialdi honek 1.332.000 euroko zenbatekoa du orotara. Nortasun juridikoa eta unibertsiteaz kanpoko irakaskuntzako itunpeko ikastetxe pribatuekin estatutu edo araudi-harremanak dituzten federazio edo elkarteek izango dute diru-laguntza horiek jasotzeko aukera. Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxe eta estatu mailako ikastetxeek osatu ahal izango dituzte federazio edo elkarte horiek, baina estatu mailako ikastetxeek osatutakoek Euskal Autonomia Erkidegoan izan beharko dute egoitza, hizkuntza-proiektua Euskadiko ikastetxeetan gauzatu beharko dute, hiru ikastetxe gutxienez EAEn izan beharko dituzte kokatuta eta itunpeko gela guztizkoa 50ekoa edo 50etik gorakoa izan beharko dute.

2017-2018 ikasturte honetan Eleaniztasunerantz programan parte hartzen ari diren 302 ikastetxe daude orotara Euskadin, publikoak nahiz itunpekoak, eta beraz, euren Hizkuntza Proiektu Eleanitza garatzen ari direnak.

Presidencia

**EL GOBIERNO DESTINA 300.000 € A BECAS DIRIGIDAS A
COOPERANTES QUE PARTICIPEN EN PROYECTOS DE NACIONES
UNIDAS EN PAISES DEL SUR**

El Consejo de Gobierno ha dado luz verde hoy a la convocatoria de las ayudas a organismos internacionales que forman parte del Sistema de Naciones Unidas y a personas jurídicas vinculadas a ellos, con el fin de becar a personas cooperantes voluntarias que participarán en los proyectos que dichas entidades desarrollan en países empobrecidos.

Las ayudas serán gestionadas por la Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo (AVCD) y se concederán a través de las candidaturas que realicen entidades o personas jurídicas vinculadas a las Naciones Unidas. El importe total de estas ayudas es de 300.000 euros. La dotación de cada beca será de 18.000 euros anuales.

Con estas becas, la AVCD impulsa la incorporación y la presencia de personas cooperantes voluntarias de Euskadi que cuentan con la formación y la capacitación profesional adecuadas para los perfiles requeridos, en las oficinas de las agencias, fondos y programas de Naciones Unidas en países de América Latina, Asia y África.

Desde 1997, han sido más de 765 las personas que han participado en este programa y han contribuido al desarrollo humano sostenible y a la protección de los derechos humanos. Además, posteriormente son numerosas las personas que han continuado desarrollando su carrera profesional en el ámbito de la cooperación internacional e, incluso, se han insertado de lleno en el Sistema de Naciones Unidas.

Gobernanza Pública y Autogobierno

EL GOBIERNO VASCO REQUIERE AL ESPAÑOL QUE RETIRE DEL ÚLTIMO CATÁLOGO DE ADIF DOS LÍNEAS DE TREN COMPETENCIA EXCLUSIVA DE EUSKADI

- Son la *08-782-Basurto Hospital-Ariz* y la *08-784-Irauregi-Lutxana-Barakaldo*, dos líneas que discurren íntegramente por Euskadi y que el TC ha dictaminado que son competencia del Gobierno Vasco
- El Gobierno Vasco solicita la convocatoria, en un plazo de dos meses, de la *“Comisión Mixta de Transferencias”* para culminar este traspaso antes del verano

El Consejo de Gobierno ha aprobado, hoy, un requerimiento al Gobierno español para que retire dos líneas ferroviarias, que discurren íntegramente por Euskadi, de la última actualización de ADIF de su red de líneas y tramos de interés general. Si no se atiende este requerimiento, es el paso previo necesario para la interposición de recurso contencioso administrativo para que el Gobierno español retire de su ámbito de competencia ambas líneas que son de titularidad de Euskadi.

Según el informe de los servicios jurídicos del Gobierno Vasco, el Gobierno español ha aprobado una nueva actualización, para 2018, de la *“Declaración sobre la Red de ADIF”*. Este catálogo, incluye las líneas *08-782-Basurto Hospital-Ariz* y la *08-784-Irauregi-Lutxana-Barakaldo*, cuya competencia, según la [Sentencia del Tribunal Constitucional 124/2016](#), corresponde a Euskadi.

COMISIÓN MIXTA DE TRANSFERENCIAS

El Gobierno Vasco considera inexplicable el retraso en la transferencia de ambas líneas de ferrocarril, un traspaso que estaba previsto materializarse a comienzos de este año, tal y como se informó al Consejo de Gobierno el pasado [18 de julio de 2017](#). Así, solicita al Gobierno español que inicie los trámites oportunos para que, en el plazo máximo de dos meses, convoque la *“Comisión Mixta de Transferencias”*, para culminar este traspaso comprometido y que, sin motivo alguno, está bloqueado por parte del Gobierno español.

11 LÍNEAS

Estas 2 líneas, que transcurren íntegramente por el territorio de la Comunidad Autónoma de Euskadi, son solo 2 de los 11 tramos que el Gobierno Vasco reclama en cumplimiento de la competencia en materia de ferrocarriles y obras públicas, recogida en los artículos 10.32 y 10.33 del Estatuto de Gernika. Una reclamación histórica del Gobierno Vasco que, además, está incluida en los puntos 38 y 173 del [“Programa de Gobierno de la XI Legislatura”](#), y que se

compendian en la ficha 5 del Informe sobre actualización de las transferencias pendientes enviado al Parlamento Vasco y al Gobierno español.

El Gobierno Vasco reclama la titularidad y administración de las infraestructuras ferroviarias para poder regular, explotar y gestionar tanto la infraestructura, como las líneas y servicios ferroviarios que transcurren por Euskadi:

PASAJEROS:

- ✓ 100: Irun-Brinkola.
- ✓ 700: Bilbao/Orduña
- ✓ 720: Bilbao/Abando-Santurtzi.
- ✓ 722: Desertu/Barakaldo-Muskiz.
- ✓ 780: Bilbao/La Concordia-Irauregi
- ✓ 790: Bilbao-Balmaseda.

MERCANCÍAS:

- ✓ 724: Bilbao-Santurtzi
- ✓ 201: Puerto Pasaia
- ✓ 481: Puerto Bilbao

Desarrollo Económico e Infraestructuras

EL GOBIERNO VASCO CONVOCA AYUDAS POR VALOR DE 10 MILLONES DE EUROS PARA EL DESARROLLO SOCIOECONÓMICO DE LAS ZONAS RURALES

- **Apoyarán inversiones destinadas a la creación y modernización de empresas, la contratación, la construcción y arreglo de infraestructuras y la mejora de la vivienda**
- **Podán beneficiarse tanto personas físicas o jurídicas, públicas o privadas que se ubiquen en cualquiera de los municipios comprendidos en las zonas Leader del País Vasco**

El Gobierno Vasco ha convocado, mediante orden de la Consejera de Desarrollo Económico e Infraestructuras, Arantxa Tapia, ayudas por un total de 10 millones de euros para la promoción, desarrollo y diversificación económica de los municipios rurales incluidos en la zona LEADER. Estas ayudas se enmarcan en el Programa de Desarrollo Rural del País Vasco 2015-2020 y tienen por objetivo, a lo largo de 2018, la creación, ampliación y modernización de empresas, la contratación por cuenta ajena, la construcción y arreglo de infraestructuras y servicios básicos y la mejora del acceso a la vivienda.

El ámbito geográfico de aplicación de estas ayudas comprende todos los municipios seleccionados para la zona Leader (un total de 122 en los que habitan más de 93.000 personas). Las ayudas tienen la consideración de subvenciones no reintegrables, y podrán beneficiarse de ellas las personas físicas o jurídicas, públicas o privadas, con o sin personalidad jurídica o cualquier tipo de unidad económica o patrimonio separado que, aun careciendo de personalidad jurídica, puedan llevar a cabo los proyectos y actividades previstos en los citados municipios.

Dotación económica

Estas ayudas son cofinanciadas con cargo al Fondo Europeo Agrícola de Desarrollo Rural “FEADER” y a los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi, conforme a lo dispuesto en el Programa de Desarrollo Rural del País Vasco 2015-2020.

Los créditos presupuestarios están dirigidos a líneas de ayuda para:

- Creación de empresas para actividades no agrícolas (Start Up)
- Inversiones en creación, ampliación y modernización de empresas
- Contratación por cuenta ajena
- Infraestructuras, servicios básicos y renovación de municipios
- Vivienda

Para el ejercicio 2018 se destina, como financiación suplementaria adicional aprobada por la Comisión en el Programa de Desarrollo Rural del País Vasco

2015-2020, la cantidad de 3.766.725,00 euros, que serán financiadas exclusivamente con cargo a los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

Presentación de solicitudes

Las personas solicitantes deberán presentar, por duplicado, ante el Grupo de Acción Local «Asociación para el Progreso del Desarrollo Rural MENDINET» la documentación genérica y la específica para cada línea de ayuda, según se detalla en la orden reguladora. El impreso de solicitud, que se adjunta como anexo III, estará disponible en la web www.nasdap.ejgv.euskadi.eus.

El plazo de presentación de las solicitudes será de un mes a contar desde el día siguiente al de la publicación de la orden en el Boletín Oficial del País Vasco, aunque se admitirán las solicitudes presentadas antes de dicho plazo pero dentro del ejercicio de la convocatoria.

La Dirección de Desarrollo Rural y Litoral y Políticas Europeas será la responsable de la gestión del programa, gestión que será compartida con la «Asociación para el Progreso del Desarrollo Rural MENDINET», que, como Grupo de Acción Local, analizará las solicitudes y la documentación requerida.

Empleo y Políticas Sociales

EL GOBIERNO VASCO A TRAVÉS DE LA RED ERABEREAN Y LA CLÍNICA JURÍDICA POR LA JUSTICIA SOCIAL DE LA FACULTAD DE DERECHO DE LA UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO SUSCRIBIRÁN UN CONVENIO DE COLABORACIÓN EN MATERIA DE LUCHA CONTRA LA DISCRIMINACIÓN Y LA EXCLUSIÓN SOCIAL, FOMENTO DE LA DIVERSIDAD Y DE LA TOLERANCIA, Y CONSECUCCIÓN DE LA JUSTICIA SOCIAL

La Red Eraberean, impulsada por el Gobierno Vasco a través del Departamento de Empleo y Políticas Sociales y de la que forman parte diversas organizaciones sociales que trabajan de manera significativa en el ámbito de la inmigración, la promoción del pueblo gitano y del colectivo LGTBI, firmará un convenio de colaboración con la Clínica Jurídica por la Justicia Social de la Facultad de Derecho de la Universidad del País Vasco.

El convenio pretende la formalización de una relación dirigida fundamentalmente a la constitución de un espacio que permita el desarrollo de dinámicas de trabajo conjuntas, en el entendimiento de que el flujo mutuo de conocimientos teóricos y prácticos en la materia relativa a la lucha contra la discriminación y la exclusión social, el fomento de la diversidad y la tolerancia, y la consecución de la justicia social, hará posible la generación de una sinergia que, en último término, posibilitará el logro de objetivos bajo una visión común o compartida.

LANBIDE – SERVICIO VASCO DE EMPLEO Y EL ENTE VASCO DE LA ENERGÍA (EVE) FIRMARÁN UN ACUERDO PARA PROMOVER LA SOSTENIBILIDAD ENERGÉTICA EN EDIFICIOS E INSTALACIONES ADSCRITOS A LANBIDE

Lanbide – Servicio Vasco de Empleo y el Ente Vasco de la Energía, EVE, firmarán un convenio que inicialmente tendrá un año de vigencia, aunque se podrá prorrogar anualmente hasta un máximo de cuatro años, para la realización de actuaciones conjuntas con el fin de avanzar en la sostenibilidad energética y mejorar la gestión energética de los inmuebles adscritos a Lanbide.

Medio Ambiente, Planificación Territorial y Vivienda

230.000 EUROS PARA UN CONVENIO CON EUDEL PARA IMPULSAR LA REALIZACIÓN DE LAS INSPECCIONES TÉCNICAS DE EDIFICIOS (ITES) EN LOS MUNICIPIOS VASCOS

El Consejo de Gobierno ha dado el visto bueno a la firma de un convenio por parte del Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial y Vivienda del Gobierno Vasco con UDEL para reforzar la implantación y seguimiento de la Inspección Técnica de Edificios (ITES) en los municipios de Euskadi.

La ITE es el instrumento fundamental para determinar el grado de conservación de los inmuebles, tanto de sus elementos estructurales como de sus instalaciones, así como de su grado de eficiencia energética y accesibilidad universal. Su realización es obligatoria para los edificios de uso preferentemente residencial que tengan más de 50 años de antigüedad, lo que obligaría a pasarla a alrededor de 73.000 inmuebles antes del próximo mes de julio. Disponer de ella es igualmente necesario para recibir cualquier tipo de ayuda pública en materia de rehabilitación y accesibilidad. Euskadi tiene un parque edificado muy envejecido, ya que de los 163.642 edificios existentes en la CAE, el 43% está construido antes de 1961, según datos del censo de vivienda de 2011, con los problemas de conservación, falta de accesibilidad y eficiencia energética previsibles.

El convenio que se va a suscribir con la Asociación Vasca de Municipios-Eudel pretende, desarrollando la Ley de Vivienda de 2015, impulsar la realización de las ITES en toda la Comunidad Autónoma, facilitando a los ayuntamientos la información y la ayuda técnica necesarias para una gestión coordinada de las ITES y su posterior registro en la plataforma Euskoregite, que deben llevar a cabo los municipios. Mediante el convenio, que tendrá una duración de cuatro años, el Departamento de Vivienda asume el diseño e implantación de los recursos materiales para la gestión de las ITES de forma coordinada con Eudel y los ayuntamientos. También se compromete a mantener la plataforma Euskoregite y a poner a disposición de los municipios sus actualizaciones.

Los costes derivados de estas actuaciones serán asumidos por el Departamento de Vivienda, para lo que destinará en el presente ejercicio 230.000 euros de sus presupuestos. Así mismo, ambas partes se comprometen a promover, de forma conjunta, actuaciones de formación y difusión en materia de Inspección Técnica de Edificios y de políticas de rehabilitación y ayudas dirigidas a los ayuntamientos.

Educación

712.000 EUROS PARA LA FORMACIÓN CONTINUA DEL PROFESORADO

- **Durante este curso 2017-2018 el Departamento de Educación ofrece 250 cursos de formación al profesorado, dentro del Plan Prest_Gara**

El Consejo de Gobierno ha aprobado, a propuesta de la consejera de Educación, la Orden por la que se convoca a entidades públicas y privadas que deseen colaborar con el Departamento de Educación a la presentación de proyectos para el desarrollo del Plan de Formación Continua del Profesorado, convocatoria Prest_Gara para el curso 2018-2019.

Con un importe global de 712.000 euros, el objetivo de esta orden es el de subvencionar los proyectos dirigidos a la realización de alguna de las siguientes actividades formativas:

-Actividades de formación en lenguas extranjeras: se destinan 200.000 euros para las actividades que se realicen a lo largo del curso académico 2018-2019, mientras que para las que se realicen en el verano de 2018 se prevén 110.000 euros.

-Actividades de formación (excluidas las de formación en lenguas extranjeras) **referidas al desarrollo de las competencias profesionales** del profesorado de las distintas etapas educativas no universitarias –excepto el de Ciclos Formativos- y las actividades relacionadas con el currículum escolar en vigor y con los ámbitos de actuación marcados por el Departamento de Educación. Para las realizadas desde el 9 de julio de 2018 al 31 de octubre de 2018 se destinarán 132.000 euros y para las realizadas desde el 2 de noviembre de 2018 al 30 de junio de 2019 se destinarán 200.000 euros.

Así mismo, la convocatoria recoge subvenciones para aquellas actividades de formación no previstas en los dos anteriores apartados pero que, propuestas por las entidades colaboradoras, resulten de interés para la formación permanente del profesorado por su contenido, enfoque o carácter innovador. Se prevén 70.000 euros para este tercer apartado.

Durante este curso 2017-2018, el Departamento de Educación ofrece al profesorado no universitario, tanto de centros públicos como de concertados, 5.762 plazas en 250 cursos de formación relacionados con las áreas anteriormente descritas, en las que están participando o participarán 4.916 docentes. Colaboran en el Plan Prest_Gara 2017-2018 un total de 60 entidades formadoras, a los que hay que sumar el Berritzegune Central (centro Dependiente del Departamento de Educación), que también ofrece actividades formativas.

Objetivo final, el alumnado

El Departamento de Educación cuenta con un plan de formación del profesorado en el que, por una parte, presenta propuestas de formación para garantizar la mejora de la competencia profesional del profesorado de la enseñanza no universitaria, y por otra, propone su formación continua según la demanda del propio profesorado. Los conocimientos y destrezas adquiridos por éstos mediante las sesiones formativas han de tener reflejo en la actividad que se desarrolla en el aula, y generar un impacto en el centro educativo, para redundar de esta manera en una mayor calidad del sistema educativo.

Por ello, el objetivo final de los procesos formativos es el alumnado. La formación tiene sentido en la medida en que revierte en el camino hacia la equidad y la excelencia del sistema educativo, en el que la referencia es el alumno o alumna, que es quien da sentido a la formación y a la innovación en el ámbito educativo.

Las entidades interesadas en participar en esta convocatoria tendrán plazo de un mes para presentar sus proyectos formativos al Departamento de Educación, a partir del día siguiente de la publicación de la Orden en el BOPV. Serán beneficiarias de esta convocatoria las entidades públicas o privadas que realizan, o están dispuestas a realizar, actividades de Formación del Profesorado en la Comunidad Autónoma Vasca, dentro del Plan Prest_Gara.

Educación

1,3 MILLONES DE EUROS PARA EL DESARROLLO DE PROYECTOS LINGÜÍSTICOS DE CENTRO

El Consejo de Gobierno, a propuesta de la Consejera de Educación, ha aprobado la Orden por la que se convocan subvenciones destinadas a las Federaciones y Asociaciones con relaciones estatutarias o reglamentarias con centros privados concertados que imparten Educación Primaria, Educación Secundaria Obligatoria y Bachillerato, que durante el curso 2018-2019 realicen proyectos de innovación para el desarrollo de un Proyecto Lingüístico de centro.

Los citados Proyectos Lingüísticos de centro podrán desarrollarse en alguna de las siguientes modalidades:

- Proyecto lingüístico de centro con el Plan Lector como prioridad y desarrollado desde la perspectiva de tratamiento integral e integrado de las lenguas.
- Proyecto lingüístico de centro de carácter plurilingüe con el euskara como eje, centrado en la impartición de áreas o materias curriculares en lenguas extrajeras.

Serán subvencionables mediante estas ayudas aquellas actividades de formación del profesorado vinculadas a proyectos de innovación para el desarrollo del Proyecto Lingüístico:

- Actividades formativas vinculadas al diseño y desarrollo del Plan Lector.
- Actividades formativas relacionadas con metodologías activas e innovadoras para favorecer el desarrollo de la comprensión lectora en el alumnado, especialmente en euskera.
- Actividades formativas dirigidas al profesorado de todas las áreas y materias para mejorar el desarrollo de la competencia comunicativa del alumnado y abordar el tratamiento integrado e integral de lenguas.
- Actividades formativas relacionadas con la enseñanza de lenguas y de materias impartidas en lengua extranjera, para desarrollar metodologías activas e innovadoras que promuevan el tratamiento integrado e integral de lenguas.

Podrán acogerse a estas subvenciones, por un importe global de 1.332.000 euros, las federaciones o asociaciones de centros concertados de enseñanza no universitaria, ya estén constituidas exclusivamente por centros privados de la Comunidad Autónoma del País Vasco, ya sean de ámbito estatal, si bien éstas últimas deberán contar con sede en la Comunidad Autónoma del País Vasco y desarrollar el proyecto lingüístico en centros del País Vasco y, contar, asimismo, con un mínimo de tres centros ubicados en la CAPV y un número total de aulas concertadas igual o superior a 50.

Durante este curso 2017-2018 hay en Euskadi un total de 302 centros educativos, tanto públicos como concertados, que participan en el programa Eleaniztasunerantz y desarrollan su propio Proyecto Lingüístico Plurilingüe.